



**LANPOSTUAK IZENDAPEN ASKEZ HORNITZEA**

**GOIERRI-UROLA GARAICO ESI**

0105/2014 EBAZPENA, 2014ko martxoaren 31koa, GOIERRI-UROLA GARAICO ESiko Zuzendari Gerentearena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko GOIERRI-UROLA GARAICO ESIn LARRIALDIETAKO GAINBEGIRALEA lanpostu bat izendapen askez betetzeko.

GOIERRI-UROLA GARAICO ESiko LARRIALDIETAKO GAINBEGIRALEA lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarrien arabera:

**OINARRIAK:**

- 1.- Parte hartzeko baldintzak.  
Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:
  - a) Osakidetza edozein zerbitzu-erakundetan, estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea eta plaza jabetzan edukitzea dagokion talde profesionalean B1.
  - b) Titulazio hau edukitzea B.
  - c) Gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia B1 lanbide taldean.
  - d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetza Euskara Planean ezarritako gainerako betebeharrak.

**2.- Kontuan hartuko diren meritak:**

- Erizaintzako unitateetan prestakuntza edo lan-esperientzia.
- Antolaketarako zein talde-zuzendaritzarako gaitasuna.
- Antolatze taldeak kudeatzeko esperientzia izatea.
- Informatika ezagutzak erabiltzaile mailan: Excel eta Word.
- SAP-Gizabide aplikazioa erabiltzen jakitea.
- Euskaraz jakitea, 67/2003 Dekretuak ezarritako irizpideen arabera.

**PROVISIÓN DE PUESTOS MEDIANTE LIBRE DESIGNACIÓN**

**OSI GOIERRI-ALTO UROLA**

RESOLUCION 0105/2014, de 31 de marzo de 2014 de la Directora Gerente de la OSI GOIERRI-ALTO UROLA, por la que se convoca la provisión, mediante libre designación, de un puesto de SUPERVISORA DE URGENCIAS en OSI GOIERRI-ALTO UROLA de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Encontrándose vacante el puesto de SUPERVISORA DE URGENCIAS en OSI GOIERRI-ALTO UROLA, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre, esta Dirección Gerencia acuerda anunciar convocatoria pública para su provisión, por el procedimiento de libre designación, con arreglo a las siguientes:

**BASES:**

- 1.- Requisitos de participación.  
Podrán participar en esta convocatoria quienes acrediten el cumplimiento de los siguientes requisitos:
  - a).- Ser estatutario, funcionario o laboral fijo en cualquier organización de servicios de Osakidetza, y tener plaza en propiedad en el grupo profesional B1.
  - b).- Hallarse en posesión de la titulación de B.
  - c).- Experiencia profesional mínima de 3 años en el grupo profesional B1.
  - d).- Resto de requisitos del Decreto 186/2005, de 19 de julio, y del Plan de Euskera de Osakidetza.

**2.-Méritos a considerar:**

- Experiencia y/o formación en gestión de unidades de enfermería.
- Capacidad organizativa y de dirección de equipos.
- Experiencia en organización y gestión de equipos
- Conocimientos de informática a nivel de usuario en Excel y Word.
- Conocimiento de la aplicación informática SAP-Gizabide.
- Nivel de conocimientos de euskera de conformidad con los criterios establecidos en el Decreto 76/2003.







- Lanpostu honetan aritzeko balioa eranstu duten eta interesgarritzat jotzen diren merezimendu guztiak aurkez daitezke.

- Se podrán aportar cuantos méritos se consideren de interés y añadan valor al desempeño de este puesto de trabajo.

### 3.- Euskararen ezagutza.

Euskararen erabilera Osakidetza normalizatzeko den martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak, eta berau garatzen duten arauak, xedatutakoaren arabera baloratuko da.

### 3.- Conocimientos de euskera.

Se valorará conforme a lo previsto en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud, y en sus normas de desarrollo.

### 4.- Eskabideak aurkezteko epea eta modua

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Goierri-Urola Garaiko ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, helbide honetan: Argixao Auzoa z/g 20700 Zumarraga. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango dute, Ebazpen honi dagokion iragarkia EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako leku eta moduetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Interesdunek eskabidea datu pertsonal guztiekin, eta dokumentatutako "curriculum vitae"-rekin batera, Goierri-Urola Garaiko ESIko ko Pertsonaleko Zuzendaritzara (Argixao Auzoa z/g 20700 Zumarraga) bidali beharko dute. Dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpulsatua.
- b) Funtzionario edo estutupeko langile izendapenaren fotokopia konpulsatua edo, hala badagokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzea egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpulsatua.
- d) Kontuan hartzeko merituz guztien fotokopia konpulsatua.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan adierazi den bezala egiaztatzea CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala egiaztatuta badaude, beti ere izangaiak eskabidean horrela dela adierazi baldin bada.

### 5.- Balorazio Batzordea.

Balorazio batzorde bat osatuko da, batzordeburu Zuzendari Gerentea edo hark eskuordetzen duena izanik, eta hauen izango dira bertako partaideak: dagokion Zuzendaria edo hark eskuordetzen duena, Pertsonaleko Zuzendaria (idazkari izango dena, ahots eta botoarekin) eta kide bi, izangaiei eskatutako titulazioa izan beharko dutenak eta, lehentasunez espezialitatea ere bai.

### 4.- Plazo y presentación de solicitudes.

Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Personal de la OSI Goierri-Alto Urola (Bº Argixao, s/n 20700 Zumarraga) de Osakidetza-Servicio vasco de salud, dentro del plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del Anuncio de la presente Resolución en el BOPV. También podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Los/as interesados/as deberán dirigir la solicitud con todos sus datos personales, acompañada de "Curriculum Vitae" documentado a la Dirección de Personal de la OSI Goierri-Alto Urola (Bº Argixao, s/n 20700 Zumarraga) La documentación deberá tener la siguiente forma:

- a) Fotocopia compulsada del DNI, pasaporte o permiso de conducir.
- b) Fotocopia compulsada del nombramiento de personal funcionario o estatutario o, en su caso, del documento que acredite la condición de laboral fijo.
- c) Fotocopia compulsada de la documentación que acredite el cumplimiento de requisitos
- d) Fotocopia compulsada de todos los méritos a considerar.

No será preciso acreditar en la forma indicada en el párrafo anterior aquéllos extremos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, si bien esta circunstancia deberá hacerse constar en la solicitud que realice el aspirante.

### 5.- Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión de valoración presidida por la Directora Gerente o persona en quien delegue, e integrado por el/la Director/a correspondiente o persona en quien delegue, la Directora de Personal (que actuará como Secretario/a con voz y voto) y dos vocales que deberán ostentar la titulación y, preferentemente, la especialidad exigida a los candidatos.





Izangaien balorazioa egindakoa, eta berau kontuan hartuta, proposamena osatuko da dagokion izendapena egiteko. Batzordeak lanpostua hutsik uztea erabaki dezake, aurretik arrazoitutako txostena osatuta, baldin eta hautagaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak zerrendatuko dira, eta lanpostua beraietako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango dira.

## 6.- Hautatzeko prozedura.

Inolaz ere ezingo dira baloratu deialdiaren iragarkia EHAA-n argitaratzen den egunean eduki ez diren merituak, ezta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen behar bezala aurkeztu eta egiaztatu ez direnak ere.

## 7.- Prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena.

Hemen hasitako prozeduraren amaiera (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), Osakidetza Goierri-Urola Garaiko ESIko Zuzendari Gerentearen Ebazpenaren bitartez egingo da, eta Osakidetza intraneten eta web-orrian argitaratuko da. Era berean, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu iragarkia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

## 8.- Ebazpen honen aurkako errekurtsoak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zumarragan, 2014ko martxoaren 31n

Efectuada la valoración de los aspirantes y a la vista de la misma, se elevará propuesta a fin de formalizar el oportuno nombramiento. La Comisión podrá, previo informe motivado, declarar desierta la plaza en caso de que los aspirantes no reúnan las condiciones exigidas.

Se levantará acta de cada sesión de la Comisión. En la misma constarán los aspirantes presentados así como los motivos tenidos en cuenta para la asignación del puesto a uno de ellos o, en su caso, para declarar desierta la convocatoria.

## 6.- Procedimiento de selección.

En ningún caso podrán considerarse méritos que no se ostenten a la fecha de publicación del Anuncio de la convocatoria en el BOPV, ni tampoco los que no hubieran sido debidamente alegados y acreditados antes de finalizar el plazo de presentación de solicitudes.

## 7.- Resolución que pone fin al procedimiento.

La finalización del procedimiento que aquí se inicia (asignación del puesto o declaración de desierta) se llevará a cabo mediante Resolución del/la Directora/a Gerente de OSI Goierri-Alto Urola de Osakidetza-Servicio vasco de salud, que se publicará en la intranet y la página web corporativa de Osakidetza. Asimismo se publicará un Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dicha resolución surtirá efectos desde la fecha de publicación del Anuncio en el BOPV, salvo que en ella se disponga otra cosa.

## 8.- Recursos contra la presente resolución

Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Zumarraga, a 31 de marzo de 2014

ZUZENDARI GERENTE / DIRECTORA GERENTE



Stua./Fdo.: TERESA GARMENDIA TOLOSA

GOIERRI-UROLA GARAICO-ESIko ZUZENDARI GERENTE  
DIRECTORA GERENTE DE LA OSI GOIERRI-ALTO UROLA